

<b>Irakasgaiaren izena</b>	<b>Kodea</b>	<b>Ikasturtea</b>
<b>Praktikak II – Atzerriko Hizkuntza Aipamena: Ingelesa (Ingelesa)</b>	<b>141242</b>	<b>2024-2025</b>
<b>Praktikak II – Sakontze Kurrikularra Aipamena (Euskara)</b>	<b>141265</b>	

<b>Titulazioa</b>	<b>Maila</b>	<b>Sehilekoa</b>
<b>LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA</b>	<b>5</b>	<b>1</b>

<b>Irakasgai mota</b>	<b>ECTS Kredituak</b>	<b>Hizkuntza</b>
<b>Derrigorrezkoa</b>	<b>12</b>	<b>EUSKARA / INGELESA</b>

<b>Arduraduna</b>
<b>OLALLA JUARISTI LARRINAGA</b>

### Justifikazioa

Bigarren praktikaldiaren helburu nagusia da lehen hezkuntzako aipameneko didaktiketan landutako ezagutza teoriko eta praktikoa testuinguru errealetan eta egoera zehatzetan aplikatzea (lehen hezkuntzako gelak). Beraz, praktikak ezinbesteko prozesua dira irakaskuntzaren lanbidean murgiltzeko, eta ikaslearen prestakuntza praktikoa sendotu eta indartzeko, kalitatezko prestakuntza bat lortzeko asmoz.

Hona hemen helburuak:

- Ikasgelari eta horren kudeaketari buruzko ezagutza praktikoa garatzea.
- Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin lotzea.
- Hezkuntza-komunitateko eta gizarte-inguruneko sektore guztiekin lankidetzan jarduteko bideak eratzea.

### Aurrebaldintzak

Practicum I gaindituta edukitzea

### Gaitasunak

#### Gaitasun orokorrak

**GO.1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA** Hitzen bidez norberaren ideiak, ezaguerak eta sentimenduak argi eta egoki adieraztea, egoeraren eta entzuleen ezaugarrietara egokituz, haien ulerkuntza eta atxikimendua lortzeko.

- 2. Menderatze maila: Taldean hitza erraz hartzea; segurtasuna adieraztea eta diskurtsoa eskakizun formaletara egokitzea.

**GO.2. IDATZIKO KOMUNIKAZIOA** Beste pertsona batzuekin eraginkortasunez erlazionatzea, norberak pentsatzen edota sentitzen duena argi adieraziz, idazkera eta adierazpide grafikoak lagun dituela.

- 2. menderatze maila: Idatziz erraztasunez komunikatzea, testuaren edukia eta lagungarri grafikoak egituratuz, irakurlearen ulermena eta interesa errazteko, luzera ertaineko idazkietan.

**GO. 3. SEN ETIKOA:** norberaren edo besteen on moralera positiboki makurtzea (hau da, ongia den edo esan nahi duen guztira, zentzuzko bizipena den guztira, pertsonaren errealizazioa dakarren guztira, justizia den edo esan nahi duen guztira) eta on moral horretan irautea.

- 3. Menderatze maila: Bizitzaren zentzu morala eta justizia printzipioa identifikatzea, ezagutzea eta aplikatzea.

## **Berriarazko gaitasunak**

**BG 1. IKASGELAREN PROGRAMAZIOAN IKASGAIK DUEN IKUSPEGIA AZTERTZEA:** Esku-hartzearen testuingurua kritikoki aztertzea: gelaren ezaugarriak, dagokion ikasgaiaren ikuspegia, edukiak, etab.

- Eskola eta bere testuingurua deskribatu, datu egokiak, behar beste datu emanez: ikasleen profilak, gelaren berezitasunak
- Esku-hartzearen eduki-blokeari dagokion ikuspegi teoriko eta metodologikoa aztertu eta deskribatu du, unibertsitatean ikasitako marko teorikoa kontuan izanda

**BG.2. IKASKETA EGOERAK DISEINATZEA ETA GARATZEA.** Proposamen didaktiko sendo eta eraginkor bat diseinatzea, eta, ahal izanez gero, gelaratzea.

- Diseinatutako proposamenaren helburuak esplizituak dira, egoki zehaztuta daude eta koherenteak dira unibertsitatean ikasitako marko teoriko eta metodologikoarekin
- Proposatzen dituen jarduerak eta atazak eraginkorrak dira helburu didaktikoa lortzeko, eta koherenteak dira unibertsitatean ikasitako marko teoriko eta metodologikoarekin
- Proposamen didaktikoan hartu dituen erabaki guztiak ondo justifikatuta daude, teoriari erreferentzia eginez.
- Esku-hartzea nola gelaratu duen egoki deskribatu du, horretarako datu pertinenteak emanez eta behar beste datu emanda.

**BG.3. IKASKUNTZAREN EBALUAZIOA PLANIFIKATZEA.** Ikaskuntzaren ebaluazioa zorrotzasunez planifikatzea, eta prozesua eta lortutako ikaskuntza ebaluatzea, eta emaitzetatik ondorioztatzen diren hobekuntzak txertatzea.

- Ikasleen prozesua eta emaitzak ebaluatzeko tresna egoki bat erabili edota (behar izanez gero) diseinatu du.
- Ikasketa prozesuari buruz eta ikasleen emaitzari buruz datu nahikoa eta datu egokiak jaso ditu.
- Gelaratutako esku-hartzearen auto-ebaluazioa egin du.
- Datuak aztertu ditu eta interpretatu egin ditu (deskribapen ona egiten du)
- Datuetatik ondorio nahikoa eta egokiak atera ditu, arrazoiak emanez.
- Ebaluazioaren ondorioak erabiliz, bere esku-hartzea hobetzeko proposamen egokiak egin ditu eta justifikatu ditu.

**BG. 4- PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA ETA LANKIDETZA GELAREN KUDEAKETAN.** Ikasleak modu eraginkorrean orientatzea eta laguntzea, bai banaka eta taldeka, batez ere behar bereziak dituztenak, haien garapen integralari laguntzeko (pertsonala, soziala eta akademikoa)

- Ikasleei, euren ezaugarrien arabera lagundu die
- Tutorearen lana osatu du, taldearen aniztasunari erantzuneko helburuarekin
- Talde txikietan lan egiteko gai da, bakoitzaren beharrei erantzunez
- Esku-hartzea ikasleen ezaugarri ebolutiboen arabera moldatu du
- Talde handian lan egiteko gai da, modu eraginkorrean erantzunez egoera horrek eskatzen dituen erronkei.
- Ikasteko gogoia eta ardura erakutsi du: arretaz behatu gelako irakaslearen lana; zalantzak eta galderak planteatu; eskolako jarduera desberdinetan parte hartu

**BG. 5- KOMUNIKAZIO GAITASUNA:** modu garbi eta zuzenean komunikatzea ahoz eta idatziz irakaskuntzaren hizkuntzan, C1 mailari dagokion hizkuntzaren kalitatea erabiliz, eta arau akademikoak kontuan izanik

- Txostenak lan akademiko batek erakutsi behar duen planifikazio, egokitasun eta txukuntasun maila erakusten du.
- Edukiari egokitutako taulak eta grafikoak jartzen ditu.
- Hizkuntza kalitateari dagokionez, C1 mailari dagozkion zuzentasuna eta egokitasuna dauzka testuak.
- Iturri teorikoen aipamena egiten da eta horretarako APA arauak jarraitzen ditu (bai lanean zehar, bai Bibliografia atalean).
- Irakaskuntza jardueran hizkuntza zuzen erabili du.
- Egoeraren arabera egokitu zaizkion rolak errespetatu ditu hizkera formala eta egokia erabiliz: irakasle, lankide, praktiketako ikasle

**BG.6- FAMILIA, GIZARTEA ETA IKASTETXEAREN ARTEKO HARREMAN BIDEAK KONTUAN HARTZEA.** Familia, gizartea eta ikastetxearen arteko harreman bideak kontuan hartu ditu ikastetxeko parte-hartzean edota berak sortutako diseinuetan.

Eskainitako aukera guztiak aprobetxatu ditu, familia, ikastetxea eta gizartearen arteko harremanak ezagutu eta horretan parte hartzeko

**BG.7- NORBERAREN GARAPEN PROFESIONALAREN PROTAGONISTA IZATEA.** Autonomiaz eta arduraz jokatzeko une oro irakasle moduan, bai gelako irakasle tutoreari laguntzen zein esku-hartzea gelarazten

- Ekimena erakutsi tutoreak emandako orientabideen arabera material osagarriak bilatuz
- Tutorearen feed-backa gogo onez onartu, eta kontuan izan du hobekuntzak egiteko
- Irakasleari laguntzeko aukerak aprobetxatu

## Edukiak

Bigarren praktikaldian zehar, Practicum II-Aipamenean didaktika hauek landuko dira: gorputz hezkuntza, atzerriko hizkuntza eta zientziak. Honako eduki hauek jarriko ditu martxan ikasleak bere aipamenari dagokion didaktikan:

1. Gelaren kudeaketa
2. Ikastetxearen antolaketaren ezagutza eta parte hartzea
3. Irakaskuntzaren planifikazioa: irakaskuntza helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak
4. Metodologiaren erabilera: estrategiak, materialak, espazio eta denboraren antolaketa
5. Ebaluazioa: emaitzen ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa, hobekuntza proposamenak

## Ikas-irakaskuntza estrategiak

Praktiketan zehar ikasleek bi tutore izango dituzte: unibertsitateko tutorea eta ikastetxeko tutorea. Tutorea hauen laguntzarekin bideratuko dira ikasketa jarduera garrantzitsuenak, ikastetxean eta unibertsitateko mintegietan.

- Esperimentazio aktiboa
- Hausnarketarako behaketa
- Hausnarketa gidatua eta tutorizatua
- Ebaluazio hezitzailea

## Ebaluazioa

Bigarren praktikaldiko jarduera nagusi biak kontuan izanik, ebaluazio elementuak ere jarduera horiei eta dagozkien gaitasunei lotuta egongo dira.

### Gaitasunak ebaluazio elementuen arabera, eta kalifikazioa

Ikastetxean egindako praktikaldia: %40

GO.1. AHOZKO KOMUNIKAZIOA

GO. 3. SEN ETIKOA

BG.4- PRESTAKUNTZA PEDAGOGIKOA eta LANKIDETZA GELAREN KUDEAKETAN

BG.7- NORBERAREN GARAPEN PROFESIONALAREN PROTAGONISTA IZATEA

BG.6- FAMILIA, GIZARTEA ETA IKASTETXEAREN ARTEKO HARREMAN BIDEAK KONTUAN HARTZEA

Ikastetxeko tutoreak egiten duen ebaluazioan, ezinbestekoa da gaitasun guztiak gainditzea praktikaldia gainditzeko.

Praktikaldiaren txostena: %60

GO.2. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA (%10)

BG 1. IKASGELAREN PROGRAMAZIOAN IKASGAIK DUEN IKUSPEGIA AZTERTZEA (%20)

BG.2. IKASKETA EGOERAK DISEINATZEA ETA GARATZEA (%50)

BG.3. IKASKUNTZAREN EBALUAZIOA PLANIFIKATZEA (%20)

BG. 5- KOMUNIKAZIO GAITASUNA

### Adimen artifizialaren erabilera

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea. Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikularen arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

## Dokumentazioa

- Txostena egiteko gidak
- Ikasgida
- Didaktika desberdinetan erabilitako bibliografia